

"KIROLETIK BAGOAZ EUSKARAZ SARIA"-REN TROFEOA SORTU ETA EKOIZTEKO DEIALDI IREKIA

AURREKARIAK

KIROLETIK BAGOAZ EUSKARAZ SARIA Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren proiektu bat da.

Saria arautzen duen agindua irailaren 4ko EHAAn argitaratu zen, eta "Kirolean Euskara Sustatzeko Plana 2021-2024" egitasmoaren markoan kokatzen da. 2024ko udaberrian emango den saria lehenengo edizioa izango da.

Kirol-munduan euskararen erabilera sustatzen lagundu duten erakunde eta pertsona fisikoen eredugarritasuna aitortzea da sariaren helburu nagusia.

Sariaren bidez, kirolean euskararen erabilera soziala babestu, sustatu edo zabaltzeko lanetan nabarmendu diren klub edo elkarteei eta eragileei ikusgarritasuna emango zaie. Kirolean euskararen erabilera sustatzearen onurak ikusarazi nahi dira, eragileen eredugarritasuna agerian utzi eta sektoreko gainerako eragileak aurrerapausoak ematera gonbidatu.

Saria pertsona juridiko bati eman ahal izango zaio (kirol-kluba, federazioa edo beste era bateko kirol-erakunde bat), baina baita pertsona fisiko bati ere (adituak, ikertzaileak, entrenatzaileak, presidenteak...).

Saria kudeatzeko, epaimahai bat eratu da kirolaren eta hizkuntza-normalizazioaren arloko adituekin. Epaimahaiak berak proposatuko du hautagaitzak zein izango diren eta zein izango den sariduna. Azken saria bakarra izango bada ere, ekitaldian proposatutako hautagai guztiak aintzatetsiko dira ekitaldian.

Sariaren irabazlea hautatzeko, hainbat adierazle zehaztu dira:

- Pertsonaren edo erakundearen eragin orokorra, jarrera eta bikaintasuna.
- Lidergoa, eredugarritasuna eta euskararen aurkezpena balio erantsigisa.
- Berrikuntza.
- Eragin-eremua eta irismena (tokikoa, lurraldekoa, autonomikoa...).
- Jardun duen lurraldearen ezaugarri soziolinguistikoak.
- Genero-berdintasuna sustatzea.

DEIALDIAREN OINARRIAK

- 1.- Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute AE-en fakultateko graduako edo graduondoko ikasketetan matrikulatutako ikasleek eta 2020tik aurrera ikasketak amaitu dituzten ikasleek (2020a barne).
- 2.- Parte-hartzaile edo kolektibo bakoitzak gehienez bi obra aurkeztu ahal izango ditu. Kolektibo gisa parte hartuz gero, ordezkari bat izendatu behar-ko da.
- 3.- Teknika eta prozedura askeak dira.
- 4.- Lanaren ardatz tematikoarekin duen lotura, sormen lanaren balioa eta kalitate teknikoa baloratuko dira.
- 5.- Proposamenak Unibertsitate Hedapeneko Dekanotzan aurkeztu behar-ko dira, behar bezala identifikatuta, 2024ko urtarrilaren 15a baino lehen, inskripzio-orri batekin, dossier artistiko pertsonal labur batekin eta 5 piezen ekoizpen-aurrekontuarekin batera. 5 piezak, lehenengo bost edizioetarako izango dira.
- 6.- Piezek edo trofeoek inskripzioa egin ahal izateko espazio bat gorde behar-ko dute. Lehenengo edizioaren testua aleetako batean grabatu, kalkografiatu edo inskribatuko da, testu honekin: KIROLETIK BAGOAZ SARIA 2023.
- 7.- Hautatu gabeko lanak parte hartzen dutenek berreskuratzeko moduan egongo dira, epaimahaiak epaia eman eta 15 egunera arte. Epe hori igarota, Arte Ederren Fakultatea ez da erantzule izango.
- 8.- Epaimahaia AE-en Fakultateko irakasleek eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako kide-ek osatuko dute.
- 9.- Epaimahaiak, aurkeztutako lanak hautatu ondoren, gehienez ere hamar eguneko epean eman behar-ko du dagokion erabakia, aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

10.- 2500 €-ko zenbatekoa ezarri da ordainsari gisa, eta 3500 €-koa (justifikatuak) piezak ekoizteko, gehienez ere 6.000 €-ko GUZTIZKO kopuruarekin. Piezak bost EDIZIO/URTETARAKO egin beharko dira, hau da, EDIZIO BAKOITZEKO pieza 1.

Hautatutako obraren egilea arduratuko da piezen ekoizpenaz. Fakultatearen instalazioak erabili ahalko dira lanerako, irakasleekin lankidetzan.

11.- Saria V/Dekanotzan entregatu ondoren ordainduko da.

12.- Hautatutako obra Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren esku geratuko da, eta honek erreprodukzio-eskubideak izango ditu KIROLETIK BAGOAZ SARIAREN komunikaziorako eta hedapenerako.

13.- Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar deialdiaren oinarriak eta ebazpena ezagutu eta onartzea.